

INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZAKO GRADUA PRESTAKUNTZA DUALERAKO HAUTAKETA PROZEDURA

Kontuan hartu beharreko datak:

- Eskaera egiteko epea: uztaillean hasi eta irailean amaitu.
- Hautaketa prozesua: iraila eta urria bitartean.
- Azaroan eta abenduan hautatutakoen dokumentazioa izapidetuko da.
- Prestakuntza dualeko ibilbidea urtarrilean hasiko da.

Eskabideak aurkezteko epea irekitzeko iragarkia eta dagozkion inprimakiak (enpresek eskainitako plazei buruzko informazioa jasotzen dutenak) posta elektronikoz bidaliko zaizkie parte har dezaketen graduako ikasle guztiei.

Ibilbide duala egiteko baldintzak:

1. Ez izatea gaindituta ibilbide dualeko irakasgairik.
2. Matrikulatuta egotea hirugarren mailan gainditu gabeko irakasgai guztietan.
3. Gehienez 18 ECTS izatea gainditu gabe lehenengo eta bigarren mailetan.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak ikasleak hautatzeko prozesua

Hautaketa irizpideak: Ikasleak baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, lehentasun hurrenkera ezarriko da "Hautaketa nota" oinarri hartuta. Nota honek kontuan hartzen ditu graduako lehen eta bigarren mailetan gainditutako kredituak eta espedienteko nota, eta era honetara kalkulatzen da:

$$\text{Hautaketako nota} = \text{EBBN} \times 0,5 + A \times 5$$

EBBN= Espedienteko batez besteko nota

A= 1- (1. eta 2. mailetan gainditu gabeko kredituak)/30

Eskaera egiteko epea amaitu eta gehienez ere astebeteko epean, aurrez hautatutako eta baztertutako ikasle eskatzailearen behin-behineko zerrenda jakinaraziko da. Baztertutako pertsonen hiru egun balioduneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarotakoan, aurrehautatutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da, aurre-hautaketako notarekin batera, eta bost egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Epe hori igarotakoan, aurrehautatutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da, aurre-hautaketako notarekin batera.



Enpresak ikasleak hautatzeko prozesua

Aurrez hautatutako ikasleen zerrendaren eta haien lehentasunen arabera, enpresa bakoitzak ikaslea hautatuko du, eta hautatutako pertsonen zerrenda ordenatua egingo du. Enpresak, egoki iritziz gero, ibilbide dualaren eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango dira hautaketa egin aurretik. Prozesu horrek bi eta hiru aste arteko iraupena izango du, gutxi gorabehera.

Ikasleak enpresei esleitzea

Eskola, enpresa bakoitzak hautatutako ikasleen zerrenda eta aurre-hautaketako nota kontuan hartuta, ikasleekin harremanetan jarriko da, haien lehentasunak kontuan hartuta, egonaldia zein enpresatan egingo duten erabaki dezaten. Horrela, ikasle-enpresa binomioen zerrenda bat lortuko da ibilbidea hasteko.

Harremanetarako: dual.eib@ehu.eus



BILBOKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE BILBAO



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE BILBAO

Hautaketa egin aurretik, enpresa ikaslearekin harremanetan jarri behar da. Prozesu horrek bi edo hiru aste iraungo du, gutxi gorabehera.

1) *Ikasleak enpresei esleitzea*

Enpresa bakoitzak hautatutako ikasleen zerrendari eta hautaketa notaren arabera zerrendari jarraikiz, eskola ikasleekin jarriko da harremanetan, ikasleak, lehentasunak kontuan izanda, enpresa aukeratu dezan. Horrela, zerrenda bat osatuko da ikaslea eta enpresa zehaztuta.

Enpresa bati esleitutako ikasle kopurua eskainitako plaza kopurua baino handiagoa bada, 2. puntu adierazitako zerrendaren arabera, hau da, lehentasun hurrenkeraren arabera, esleituko dira ikasleak kasuan kasuko enpresara, plaza guztiak bete arte.